

518/2025 EBAZPENA, MARTXOAREN 25EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIREN BIGARREN FASEAN (2020-2021-2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA) ESKAINITAKO DESTINOAK, 2022KO ABENDUAREN 27AN EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN ARGITARATUTAKO EBAZPENAREN BIDEZ DEITUTAKO KATEGORIA/LANPOSTU FUNTZIONAL BATZUETAN, 2020-2021-2022-EGONKORTZEKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN BARRUAN.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 1065/2024, ekainaren 26ko 1125/2024, irailaren 20ko 1339/2024, irailaren 26ko 1360/2024 eta urriaren 7ko 1378/2024 Ebazpenen bidez, ebazpen horietako kategorietan / lanpostu funtzioaletan eskaintzen diren destinoak jakinarazten dira. Destino horietarako deialdia 2022ko abenduaren 27ko EHAAren argitaratu zen, 2020-2021-2022ko egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren barruan (Osakidetzaaren webgunean argitaratu ziren 2024ko uztailaren 17an, irailaren 25ean, urriaren 3an eta urriaren 9an, hurrenez hurren).

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako irailaren 26ko 415/2024 Epaiaren ondorioz, 2024ko azaroaren 13an, bi ebazpen argitaratu ziren EHAAren: batetik, 1510/2024 Ebazpena, azaroaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak onartzen dituen 1736/2022 Ebazpena, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena; eta, bestetik, 1511/2024 Ebazpena, azaroaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren hainbat ebazpen, horien bitartez onartu baitziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022-Egonkortzeko hautaketa-prozesuan deitutako kategoria guztien oinarri espezifikoak.

Hala, aipatutako Epaiak egikaritzuz, eta egonkortze-prozesua 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebazteko betebeharrak betetz, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera, 2020-2021-2022 urteetako eta Egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza ondoz ondoko bi fasetan garatuko da:

1.- EGONKORTZEKO EPE-A:

Oposizio-lehiaketa sistema: Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua, eta

Lehiaketa-sistema: Lege berberaren 6. eta 8. xedapen gehigarriak.

2.- 2020-2021-2022ko EPEa:

Oposizio-lehiaketa sistema: 2020-2021-2022ko EPEko barne-sustapena.

Oposizio-lehiaketa sistema: 2020, 2021 eta 2022ko EPEko txanda irekia.

Horregatik guztiagatik, eta bigarren faseari (2020-2021-2022ko EPEa) dagokionez, deialdiaren xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan aipatutako kategorietan / lanpostu funtzionalen destinoak zehazteko eta argitara emateko, honako hau ematen da:

EBAZPENA:

Lehenengoa. – Deialdiaren xede diren kategorია / lanpostu funtzionalen bigarren faseari (2020-2021-2022ko EPEa) dagozkion zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak (hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data barne, halakorik balego) zehaztea, dagozkien eranskinen bidez (kategoria / lanpostu funtzional horiek deitu egin ziren zegokion ebazpenaren bidez, 2022ko abenduaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoa):

- ANESTESIOLOGIAKO ETA BIZKORKETAKO FEM
- KARDIOLOGIAKO FEM
- KIRURGIA OROKORREKO ETA DIGESTIO APARATUKO KIRURGIAKO FEM
- ZAINKETA ARINGARRIETAKO FEM
- DERMATOLOGIA MEDIKO KIRURGIKOKO ETA BENEREOLOGIAKO FEM
- PNEUMOLOGIAKO FEM
- OFTALMOLOGIAKO FEM
- ANALISI KLINIKOKO FEMT
- IMMUNOLOGIAKO FEMT
- OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO FEMT
- ODONTOLOGIAKO FT
- ADMINISTRAZIOKO ETA KUDEAKETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- EUSKARAREN NORMALIZAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
- EMAGINA
- SUKALDARIA
- EMERGENTZIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
- INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA

Bigarrena. - Ebazpen hau Osakidetza web-orrian argitaratzea agintzea.

Hirugarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 25a



SUSANA LOPEZ ALTUNA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia